

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA

# 1927

*AGINDUA, 2026ko apirilaren 24koa, Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburuarena, sail honetako izendapen askeko lanpostu bat kargutik kentzea xedatzen duena.*

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 103. artikuluan xedatutakoa-  
rekin bat etorriz, eta lege horrek ematen dizkidan eskumenak erabiliz, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

Lehenengoa.– Loreta Ruiz Mihi andrea Arabako Lan Ikuskaritzako izendapen askeko lanpostu-  
tik kentzea (511211 lanpostua, 5 dotazioa), eta emandako zerbitzuak eskertzea.

Bigarrena.– Kargu-kentze honek 2026ko maiatzaren 25etik aurrera izango ditu ondorioak.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du; beraz, beraren aurka aukerako berraztertze-  
errekurtsoa aurkez dakioke organo honi hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-erre-  
kurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzien epaitegian bi hileko epean, agindua Euskal  
Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 24a.

Jaurlaritzako bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua,  
MIGUEL TORRES LORENZO.